

PATXI MORENTIN GIZARTE ETA KIROL-GUNEAN DAGOEN ROKODROMOA ERABILTZEKO GOMENDIOEN PROPOSAMENA

Rokodromoa deituko zaio, oro har, egitura eskalagarri osoari eta bi espazio bereiziko dira:

- Eskalada bien eremua: 3 metrotik gorako altuera duena eta segurtasun-ainguraketak dituena (txapak). Soilik sokarekin eskalatu ahal izango da, araudi honetan zehaztutako gutxieneko segurtasun-baldintzak betez.
- Boulder eremua: harmailen azpiko aldea, 3 metroko altuera gainditzen ez duena eta sokarik gabe eskalatu daitekeena. Gune hori segurtasun koltxoneten bidez babestuta egongo da.

1. Artikulua: Instalazio honen berezitasunagatik, batez ere duen arriskuagatik, rokodromoa erabili ahal izateko honako baldintza hauek bete behar dira:

- Mendiko federazioaren txartela izatea, kirol mota horretarako gaitasuna duela egiaztatzen duena.
- Adin nagusiko eskalatzaile guztiak onarpen-adierazpena bete eta aurkeztu beharko dute (I. eranskina).
- 16 eta 17 urte beteak dituzten eskalatzaileak bakarrik joan ahal izango dira eskalatzera, baldin eta alde zurretik gurasoen edo tutoreen berariazko baimena aurkeztu bada eta instalaziora bakarrik joateko aukera eman bazaie (II. eranskina).
- 16 urtetik beherako eskalatzaileak, soilik adinez nagusi den pertsona batek lagunduta eta gainbegiratuta sartu ahal izango dira rokodromora. Aldez aurretik instalaziora joateko berariazko baimena aurkeztu beharko dute, gurasoek / tutoreek sinatuta (III. eranskina).
- Kirol-esparrura sartzeko atzaintzan indarrean dagoen federazio-lizentzia aurkeztea. Jarduera amaitu ondoren, harrera-gunetik hartuko da.

2. Artikulua: Instalazioa erabiltzeko, nahitaezkoa izango da hura erabiltzeko ezarritako prezio publikoa ordaintzea.

3. Artikulua: Rokodromoaren esparruaren barruan soilik une horretan eskalada egiten ari diren erabiltzaileak egongo dira.

4. Artikulua: Instalazioan gehienez ere 16 eskalatzaile egongo da.

5. Artikulua: Erabiltzaileek beren materiala erabiliko dute. Material hori UIAren arauen arabera homologatuta egon beharko da. Ezingo da 1. aseguru-lerroa gainditu soka erabili gabe.

6. Artikulua: Nahitaezko materiala: katu-oinak eta magnesio likidoa.

7. Artikulua: Eskaladan, kordadako lehen eskalatzaileak bideko aseguru-puntu guztiak mosketoiekin itxi behar ditu. Erabiltzen ari ez diren bideak ezin dira okupatu.

8. Artikulua: Erabat debekatuta dago presak lekuz aldatzea. Horren inguruko edozein iradokizun instalazioko langileei jakinarazi beharko zaie, azter dezaten.

9. Artikulua: Segurtasun-arrazoiengatik, ezin dira babes-koltxonetak mugitu, eskalada-hormaren azpian egon behar baitute beti.

10. Artikulua: Rokodromoa eskalada egiteko diseinatuta dago; beraz, diziplina horretatik kanpoko edozein maniobra arriskutsua izango da, hau da, ez da tirolinarik edo soka horizontalik jarriko.

11. Artikulua: Rokodromoaren erabilera eta erabilpen desegokiak eragin ditzakeen ondorioak, soilik erabiltzailearen ardurapean egongo dira.

12. Artikulua: Kirol-instalazioak erabiltzeko edozein baldintza zehatz edo jarraibide orokor ez betetzeak zehapena ekar dezake.

13. Artikulua: Araudi honen 1., 2. eta 3. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erabiltzaile guztiak Rokodromo / Boulder instalaziorako sarrera libre izango dute, kirol-arloak urtero ezarriko dituen erabilera ordutegietan.



Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF/IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

OHARRA: Irekitzeko ordutegia eten edo aldatu ahal izango da, baldin eta moduluren batean hala gomendatzen duen jardueraren bat badago (lehiaketak...). Udaleko kirol-arloak, dauden beharren arabera, urtean zehar ordutegiak alda ditzake.

-I. ERANSKINA-
UDAL-ROKODROMOKO INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUDIAREN ADOSTASUN
ADIERAZPENA

_____ Jaun/Andreak,
adin nagusikoa, _____-ko _____
-an helbidea duena, eta _____ NAN zenbakia, bere izenean, dokumentu honen
bidez

KONPROMISOA HARTZEN DU

Zizur Nagusiko Udalak udal-rokodromoaren erabilera arautzen duen erregelamenduan ezarritako baldintza guztiak betetzeko. Dokumentu honen bidez, araudi horrekin ados dagoela adierazten du.

Eta horrela jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut Zizur Nagusian 202_ ko _____ren
__an.

-II. ERANSKINA-

**16 ETA 17 URTE BETEAK DITUZTEN ESKALATZAILEEN AITA/AMA/TUTORE LEGALAREN
BAIMENA, UDAL-ROKODROMORA ESKALADA EGITERA BAKARRIK JOATEKO**

_____ Jaun/Andreak, adinez nagusikoak,
_____(a)n _____
_____(a)n helbidea duenak, eta _____ NAN zenbakiarekin,
_____ NAN zenbakia duen _____

Jaun/Andrearen ama/aita/tutore legala den heinean (ezabatu beharrezkoa ez dena), honako dokumentu honen bidez

BAIMENA EMATEN DIO

_____ Jaun/Andreari, ____ urte dituenari, eskalatzera
bakarrik joateko, betiere Zizur Nagusiko Udalak udal-rokodromoaren erabilera arautzen
duen araudian ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Eta horrela jasota gera dadin, idazki hau sinatzen dut Zizur Nagusian, 202__ko
_____ren __ (a)n.

-III. ERANSKINA-

**16 URTETIK BEHERAKO ESKALATZAILEEN AITA/AMA/TUTORE LEGALAREN BAIMENA,
ADINEZ NAGUSI DEN PERTSONA BATEK LAGUNDUTA, BERE ARDURAPEAN ETA
GAINBEGIRATUTA UDAL-ROKODROMORA ESKALADA EGITERA JOATEKO**

_____ Jaun/Andreak, adinez nagusikoak,
_____ (a)n _____
_____ (a)n helbidea duenak, eta _____ NAN zenbakiarekin,
_____ NAN zenbakia duen _____
Jaun/Andrearen ama/aita/tutore legala den heinean (ezabatu beharrezkoa ez dena), honako dokumentu honen bidez

BAIMENA EMATEN DIO

_____ Jaun/Andreari, adinez txikikoari
_____ Jaun/Andreak lagunduta, bere ardurapean
eta gainbegiratuta, rokodromora joateko, betiere Zizur Nagusiko Udalak udal-
rokodromoaren erabilera arautzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Eta horrela jasota gera dadin, idazki hau sinatzen dut Zizur Nagusian, 202__ko
_____ren __ (a)n.